

**ORAIN 50 URTEKO GERRATE-NEKEAK
KARMEL-DARRON GOGOAN****Anai-burrukea biztu da**

Oñatin eta Arantzazun, 1936ko bagillaren 30tik urrengo illaren bostera arte, aste osoko Andra Mari-batzarra ospatu zan Gazteizko Eleiz-barrutiaren eragitez. Batzarraren barri emotean. Gazteizko *Boletin*-ak Mateo Mujikaren gotzaialdiko ospakizunik andiena izan zala autortu eban. An izan ei ziran alkarturik, ez bakarririk arabarrak, giputzak eta Bizkaiko semeak; Naparroatik be ainbat lekutatik talde galantak eldu ei ziran Batzarrera. Alan an ikusi ei zan, egiazko egiñik, Laurak-Bat-en lemak adierazoten dauan batasun eder opagarria. Gure lau lurraldeetakoak millaka ta millaka alkartu ei ziran an, bakotxaren politika alde batera itxita, guztiak anaitasunik ederrenean, Ama baten babespean.

Etzan ames txarra; baiña tamalez ez eban luzaro iraungo. Nok usteko eban, andik amabost egun joan orduko, ain osozko aldakuntza ikusiko zanik: anai-arteke gerraterik amorratu eta odoltsuena! Ondo gogoan daukagu: uztaillaren 17 (barikua zan) abade bat etorren, irlandarra abizenez eta euskalduna, Bizkaiko Zornotzako Karmeldarren Ikastetxera. Ain zuzen, Barakaldoko talde batekin Arantzazura erromes joanda, etxerakoan, Zornotzako Ikastetxe orretan sartu-urtena egitea emon eutsan gogoak, berak ara bialduta, Barakaldoko seme bat eukalako. Kezkaz etorren, bidean entzuniko albiste txar bataz: Afrikatik zurrumurru